

Txakur gorriak eta marraka ari diren katuak



Xixili

Egileak:

Malen Amenabar, Mariñe Arbo, Netea Ibarzabal eta Ane Labaka

Argitaratzailea: Txakur Gorria

Argitaratze urtea: 2017

Generoa: Komikia



TERE IRASTORZA IDAZLEA

Larrutan, erditzen edo borrokan marraka bera egiten duten katuak: katar buru handiarekin lotzen diren kateme ederrak. Horretaz dihardu Txakur gorria argitaletxeak argitara eman duen *Xixili* lanak.

Nondik sartua erakusten ez duten unibertsoak dira *Atea irekiko ez lidakeen pertsonen etxean leihotik sartu nintzenekoa* lana, dela barrukoek aterik ez irekitzea erabaki dutelako, dela barrutik bakarrik irekitzen diren atea dituzten etxean direlako.

Eta horrela txikitatik "burutik jota zaude" entzun izanaren poderioz, puztu eta uzkurtuz, bere gorputzean preso sentitzen diren emakumeek ondorioztatzen

dute: "Nire gorputza psikiatriko bat balitz, ez legoke irteerarik".

Unibertso horixe leherrarazi edo, behintzat, desplazatu nahi dute, autoedizio proiektu batean diharduten lau artista euskaldunek. Elkarrekin sortu eta ekoiztuz egin nahi dute, gainera, liburuak miatu ondoren bakarrik irakurtzen diren lehen orrian ohartaraziz: "Sortzen zaigun lehen ideia plazaratzera iritsi arteko prozesuko pausu guztiak

IDEIA BIDEZ ADIERAZTEN DENA IDATZIZ ADIERAZTEN DENA BEZAIN ESANGURATSUA DA

modu kolektiboan ematea dugu helburutzat. Prozesu horretan, Malen Amenabar eta Mariñe Arbo arduratzen dira irudiaz –ilustrazioez, maketazioaz eta diseinuaz...– eta Nerea Ibarzabal eta Ane Labaka, aldiz, testuaz".

Neurri, egikera eta formatu anitzeko bost liburu zituen salgai jarri zituzten Zarauzko Literaturia azokan Txakur Gorria-koek. Izugarri zaindu diren sorlanak, zeinetan ideia bidez adierazten dena idatziz adierazten dena bezain esanguratsu den, non generoen arauak apurtuz eta apartuz, errepikaezin diruditen lanak gozatuz norbanako bakan sentiarazten gaituzten. Hau poza!

Urte askotarako, sorkuntza beti da gazte eta emankor! ■■■